

11- LPSen AUKERATUTAKO KOKALEKUETAN PARKE EOLIKOEN INSTALAZIOA ETA JARRAIPENA

1. PARKEEN INSTALAZIOA

LPS honetan aurreikusitako kokalekuetan parke eolikoak ezartzeko, aurretik instalazioen administrazio baimena lortu beharko da eta proiektu teknikoa onartu, legeria elektrikoaren arabera; ahaztu gabe, betiere, aurreko 10. Kapituluko 6. Puntuan esandakoa.

Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak, instalazioen inguruko administrazio baimena emateko eskudunak, eskaerak ebatziko ditu, sektore legeriako eta, batez ere, Lurralde Plan Sektorial honetako irizpideak kontuan hartuz.

Baldin eta zona berean eta hilabeteko epean, lehenengoa aurkezten denetik hasita, parke eolikoak ezartzeko bi eskaera edo gehiago badaude, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak baimenduko du baldintza hauek betetzen dituen eskaera: teknikoki besteak baino eragin gutxiago sortzea ingurumenari; eraginkortasun energetiko handiagoa bermatzea; eta besteak baino hobeto egokitzea Lurralde Plan Sektorial honetara, Plan honetako irizpide eta helburuen arabera. Hala ere, eskaerak berdinak edo berdintsuak badira, eta aplikatu daitezkeen prozedura-arau bateko irizpide espezifikoak ez dauden bitartean, beste alderdi batzuk ere kontuan izango dira; hala nola, zonarentzat eta Autonomia Erkidegoarentzat abantaila sozioekonomiko handiena dakarrena, ekarpen teknologikoa edo proiektuak ukitzen duen zonako landa eremuak garatzeko laguntza. Eta hala eta guztiz, berdinak edo berdintsuak jarraitzen badute izaten eskaerak, lehenetsuna izango du administrazioari aurrena aurkeztutakoak.

Instalazioak ezartzeko administrazio baimenaren helburua izango da parke eolikoan horrelako parke batek eskatzen dituen zerbitzuak eta instalazioak ezartzea, horien segurtasun baldintzak eta baldintza teknikoak bermatzea eta parkearen inguruko hainbat balore zaintzea (natura, hirigintza, paisaia, kultura, nekazaritza, abeltzaintza eta basoen inguruko baloreak).

Instalazioa baimentzeko eskaerarekin batera, sustatzaileak, sektore elektrikoko Legearen arabera (28-2 artikulua), hau egiaztatu beharko du: eskatutako instalazioen inguruko baldintza teknikoak eta segurtasun baldintzak, ingurumena babesteko

baldintzak ondo betetzea eta duen ahalmena (legala, teknikoa eta ekonomikoa) eskatutako proiektua burutzeko.

Eskaerarekin batera, halaber, aurreproiektua aurkeztu beharko da, eta proiektuak gutxienez eduki hau izan beharko du:

A) Memoria. Memorian hau azalduko da:

- a) Instalazioen kokalekua
- b) Instalazioen edukia eta xedea
- c) Instalazioaren ezaugarri nagusiak

B) Planoak. Planoak eskala egokian egongo dira

C) Gutxi gorabeherako aurrekontua

Era berean, ezarritako arauzko epean, teknikoak izenpetutako proiektua aurkeztu behar da, baita instalazioaren zatiei dagozkien separatak ere; hain zuzen ere, ondasunei, instalazioei, obrei edo zerbitzuei, beste administrazio publiko, organismo eta korporazioen menpe dauden zentroe edo zonei eragiten dieten alderdienak, azken horiek baldintzak ezar ditzaten. Gainera, proiektuan sartuta edo ez, ondorengo dokumentu hauek ere aurkeztu beharko dira:

D) Ingurumen inpaktuari buruzko azterketa. Azterketan jasoko dira, gutxienez, Ingurumena Babesteko Euskadiko Lege Orokorrean (45. artikulua) aipatzen diren datuak (234. orrialdea).

E) Energia ekoizpenaren justifikazio teknikoa. Neurketak kokalekuan bertan jarriko dira, eta baita korrelazio metodoak ere.

F) Parke eolikoa eraikitzeke egutegia eta finantza plana.

G) Sustatzaileak proiektuari ekiteko duen ahalmen ekonomikoa justifikatzeko dokumentazioa.

H) Parkea instalatzeko aurreikuspen ekonomikoak, gastuak zehaztuz (ekipoak, instalazio elektrikoak, obra zibilak eta ingurumeneko eragina zuzeneko neurriak.

I) Ordezkarri legalak sinatutako konpromisoa, instalazio osoa kentzeko edo lursailak itzultzeko, bi urteko epean, energia ekoizteari uzten zaion egunetik hasita.

Parke eolikoak instalatzeko administrazio baimena Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak bideratuko eta emango du, sektore elektrikoko azaroaren 27ko 54/1997 Legearen eta instalazio hauen inguruko gainerako arauen arabera.



Instalazioen baimena eman aurretik, proiektu bakoitzari ingurumen inpaktuari buruzko ebaluazioa egingo zaio. Ingurumenaren inpaktuaren inguruko prozedura dago Ingurumena Babesteko Euskadiko Lege Orokorreko 47. artikuluan. Proiektuko instalazioen baimena lortzeko jardunbidearen barruan, jendaurreko izapidea (ekainaren 28ko 1302/1986 Errege Dekretu Legegilea) Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak burutuko du.

Baimenak emango dira ahaztu gabe, betiere, behar izan litezkeen beste emakida, lizentzia edo baimenak, aplikagarriak diren beste xedapenen arabera.

Proiektuaren informazio publikoko izapideari dagokionez, gaiaren inguruan eskumenak dituzten eta izapide hori burutu behar duten administrazioek ahaleginak egingo dituzte izapideak batera burutzeko. Horrela informazio publiko bakarra

egongo da, denetarako; eta hori bakoitzaren eskumenak ahaztu gabe. Jendaurrean jartzeko izapidea Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak burutuko du, instalazioen administrazio baimenari buruzko jardunbidearen barruan.

Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak baimena ukatu egin du, arrazoiak emanez, indarrean dagoen legeria eta Lurralde Plan Sektorial honetako funtsezko xedapenak ez badira errespetatzen. Sailak ukatu egingo du, halaber, zuzendu ezin diren akats teknikoak ikusten baditu, edo finantzazio eskasa.

2. PARKE EOLIKOETAKO INGURUMEN INPAKTUARI BURUZKO AZTERKETAKO GUTXIENEN EDUKIAK

Proiektu bakoitzari ingurumen inpaktuari buruzko ebaluazioa egiteko, eta alde batera utzi gabe irailaren 30eko 1131/1988ko Errege Dekretuko, Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa gauzatzeko Erreglamendua onartu zuen Errege Dekretuko 13. artikuluan eta ondorengoetan esandakoa, proiektu bakoitzean LPS honetan aipatzen diren datuak jasoko dira, gutxienez. Betiere, ondoren aipatzen diren gaiak azpimarratzea ahaztu gabe:

2.1. Ingurumen inbentarioa eta ingurumen edo ekologi elkarrekintza nagusien deskripzioa

Instalazio eolikoak dela eta, kalteak jasan ditzaketen ingurumen faktoreei erreparatuko zaie.

2.1.1. Hidrologia

Dauden elkarrekintzak aztertuko dira. Elkarrekintzak uraren behin-behineko eta behin betiko bideetan egongo dira, eta baita instalazioko zenbait elementutan ere: hodiak, bideak... Arreta berezia eskainiko zaie sakonune txikiei, putzuei eta askei, garrantzia handia baitute mendien ekosisteman.

2.1.2. Landaretza

Instalazioak eragiten dien landare komunitatea eta inguruan garrantzitsuak diren beste zenbait landare deskribatuko dira. Komunitate bakoitzean sartuko da tokian tokikoak edo esanguratsuak diren espezieak; hain zuzen fisionomiari eta serie ebolutibo-erregresiboari dagokienez. Horiek guztiak 1:5.000ko edo gehiagoko eskalan kartografiatuko dira.

Landare komunitateen eta interes komunitarioko habitaten artean dauden baliokidetasunak aipatuko dira, 92/43 Direktibaren arabera. Direktiba hori habitat, flora eta fauna basatien babesari buruzkoa da.

2.1.3. Flora

Baldin eta Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan agertzen diren flora taxonak instalaziotik gertu badaude, horien presentzia aipatu egingo da. Espezie bakoitzak EAEn duen egoera aipatuko da eta espezie bakoitzaren populazioaren garrantzia ere bai, espezie horren populazio osoa kontuan hartuta. Horiek guztiak 1:5.000ko edo gehiagoko eskalan kartografiatuko dira.

2.1.4. Fauna

2.1.4.1. Azterketa orokorra

Proiektuak beteko duen lursailean dauden espezieak aipatuko dira (10x10 km-ko laukiak). Gutxienez ornodunak aipatuko dira. Instalazioak ukitutako biotopo garrantzitsuenak deskribatuko dira eta biotopo bakoitzeko berezko espezieak aipatuko.

2.1.4.2. Hegazti faunaren azterketa

Hiru azterketa maila ezartzen dira:

- **Orokorra:** Normalean eremu horretan bizi diren espezieak aipatuko dira, eta beraien fenologia eta ugaritasuna ere adieraziko dira.
- **Aurreikusitako inpaktua 6 puntuz goitik duten proiektuak (ikus 1848. orrialdea):** Atal honetako lehen puntuaz gain, eremuan bizi diren espezie ertain-handiek bizi diren lekuan duten jokabidea eta lekuari ematen dioten erabilera aztertuko dira, eztei geldialditik hasi eta heldugabeen sakabanatze fasera arte.
- **Babestutako espazio naturaletan edo hegaztientzako eremu garrantzitsuetan kokatzen diren proiektuak:** Aurreko azterketak bere osotasunean beteko du urteko zikloa. Gainera, hegaztien bertako ibilbideak aztertuko dira, eztei aurreko eta eztei osteko migrazioetan, eta baita ibilbideak baldintzatzen dituzten baldintza meteorologikoak ere.

2.1.5. Paisaia

Inguruaren deskripzio orokorra egingo da: osagai fisiografiko-geomorfologikoak estalitako landareak eta gizakiaren aldaketa maila. Horrez gain, EAeko Paisaia Maparen kopia gehituko da, 1:25.000ko eskalan.

Ikuspena: Parke eoliko osoaren ikus eremua egingo da, beharrezkoa izanez gero, ikuspen desberdineko aerosorgailuak bereiziz. Azterketako distantzia ez da 14 km baino gutxiagokoa izango.

Paisaiaren kalitatea: Inguruaren ikusmen kalitatea ebaluatuko da, honako elementu hauen arabera: puntuaren berezko kalitatea (morfologia, landaretza, elementu bereziak...), gertueneko inguruaren ikusmen kalitatea (landareen osaketak, litologia, ur putzu handiak...) eta sakonera eszenikoaren kalitatea (ikuspenartekotasuna, altitudea, landareen osaketak eta aniztasunak, geomorfologia...).

Jasotako ikusmenaren hauskortasuna: behin betiko eta behin-behineko behatzaile kopurua, behatzeko distantzia, behatzaileen erakarpenguneak, behatzaileen joera...

2.1.6. Ondare historiko-kulturala

Euskal Ondare Kulturalaren Zentroaren txostena gehituko da eta hor agertuko da obrak direla-eta ukituko diren ondasunak, eta ondasun horiek babesteko hartu beharreko neurriak.

2.1.7. Erabilpenak eta jarduerak

2.1.7.1. Nekazaritza

Proiektuak eragina duen eremuaren inguruko lursailak aipatuko dira, lursailak belarkara uztarako erabiltzen direnak izango dira. Aipatuko dira uzta garrantzitsuenak, batez beste ekoizten dena eta dauden nekazaritzako azpiegiturak: ureztatzeak, bide sareak...

2.1.7.2. Abeltzaintza

Proiektuak ukitzen dituen zonako larreak edo zelaiak. Lursail horiek nola erabiltzen diren, zein urte sasotan, ganadu motak, eta horiek gobernatzeko modua.

2.1.7.3. Basozaintza

Proiektuak ukitzen duen zonako baso ustiategiak aipatuko dira, eta baita bertako landare espezieak, horiek gobernatzeko modua eta batez beste ekoizten dena.

2.1.7.4. Aprobetxamendu zinegetikoa

Proiektuak ukitzen dituen lursailen kalifikazio zinegetikoa aipatuko da. Itxitura barruan dauden lursailei dagokienez, aipatuko dira dauden espezie nagusiak eta urtean batez beste atzematen direnak. Aipatuko dira, halaber, dauden ehiza postuak, migrazio ehizakoak eta barrutiko beste zenbait elementu: erreserba, trebatzeko eremua...

2.1.7.5. Atsedenekuak

Aipatuko dira aerosorgailuen lerrokadurak hartzen duen ikus eremuko atsedeneku azpiegiturak: GR, PR, Santiago bidea, ekipatutako atsedenekuak, puntu eszenikoak...

2.1.7.6. Beste batzuk

Aipatuko dira, baita ere, proiektuak ukitutako zona inguruan dauden beste aprobetxamenduak.

2.2. Neurri zuzentzaileen ezarpena

2.2.1. Parke Naturalak

Instalazio eolikoa zonako NBOPera zenbat egokitzen den aztertuko da. NBOParekin bat ez datozen instalazioak atzera botako dira.

2.2.2. LAletako aisiguneak

Parke eolikoak aisiguneengan duen eragina aztertuko da 1.2 irizpidearen arabera. Irizpidea IX. kapituluko 3.1.3.1 puntuan agertzen da, 170. orrialdean.

2.2.3. Natura Sarea 2000

Kokalekuak *ZEPA* edo *ZEC* izendatutako lekuren bati eragiten badio, ingurumen inpaktuaren inguruko ebaluazioa egingo da, 92/43 Direktibako 6.3 artikulua arabera.

2.2.4. Katalogatutako espezieak

Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan sartuta dauden espezieek jasandako eragina aztertuko da, bereziki hegazti eta flora taldeek jasaten dutena. Mehatxatutako

flora espeziekoek jasaten badute eragina, neurri konpentsatzaileak ezarri ahal izango dira.

2.2.5. Landaretzak jasandako eraginak

Bertako zuhaitzietei eragitea saihestuko da. Dena den, onargarriak izango dira landaretza txikiei edo han-hemenka dauden landare aleei eragitea; kasu horietan beharrezkoa izango da neurri konpentsatzaileak ezartzea. Puntu honetatik at gelditzen dira ebakuazio instalazioak jartzerakoan edo sarbideak egiterakoan sortutako eraginak, nahiz eta horiei ere irtenbidea aurkitu beharko zaien; hain zuzen, gutxieneko eraginaren/gastuen arteko harreman egokia azalduko duen irtenbidea.

Habitat mota bereziei eragitea saihestuko da, IX. kapituluko 3.1.2.8.1.1. puntuaren arabera, 162. orrialdean; hain zuzen ere, habitat mota hauei: 15.15, 15.17, 15.18, 16.223, 16.227, 21, 22.12 x 22.44, 22.34, 24.4, 36.41, 45.2, 52.1 & 52.2, 54.12 eta 54.2 (92/43/CEE Direktibako izendegiaren arabera). Saihestuko da, halaber, honako habitat motei eragitea: 15.13, 15.16, 16.211, 16.212, 17.2, 22.11 x 22.31, 22.13, 24.52, 37.8, 41.9 eta 44.8, eta kasu horietan ere neurri konpentsatzaileak ezarri ahal izango dira.

2.2.6. Ondare kulturala

Katalogatutako edo inbentariatutako ondasun higiezinak ez zaie eragingo, eduki ditzaketen babes koroak barne. Presuntzio arkeologikoak dauden eremuetan azterketa arkeologiko bat eskatuko da, indarrean dagoen legearen arabera.

Obretan ibiliko den arkeologo bat eskatuko da. Arkeologoak adieraziko die langileei ondare kulturalaren presentzia. Arkeologoak han egon beharko du lanak burutzean (lur mugitzeak), lanek arkeologi ondarea kaltetu baitezakete.

2.2.7. Paisaia

Instalazioaren inpaktua nabarmen gehitzen duten lerrokaduraren zatiak atzera botako dira.

2.2.8. Biztanleria

Zonan bizi den jendeak jasaten dituen eraginak saihesteko edo murrizteko, neurri antolatzaileak edo zuzentzaileak hartuko dira; batik bat, parkea instalatzen ari

diren garaian kamioiak-eta pasatzerakoan sortutako eraginak saihesteko edo murrizteko.

2.3. Ingurumenari dagokion jarraipena

2.3.1. Gauzatutako neurri zuzentzaileen jarraipena

Parke eoliko bakoitzean, instalazio obren eragina jasaten duten lursailak azkar konpontzeko eta ingurunean integratzeko neurri zuzentzaileak gauzatu ondoren, parke bakoitza sustatzen duen enpresak burututako ekintzen jarraipena eta kontrola egingo du, batik bat aurreneko urteetan. Jarraipen eta kontrol horren helburua izango da parkea egoki ari dela funtzionatzen egiaztatzea; halaber, beste ordeko neurri batzuk aplikatzea, behar izanez gero, eta aurrekoek gaizki funtzionatzen dutelako; azkenik, jarduerak planteatzea, egoera berriak edo antzekoak sortu direlako.

Era berean, sarbideak ondo zaindu beharko ditu, parke eolikoan kontrol, mantentze eta konponketa lanak errazteko.

2.3.1.1. Hegazti faunak jasandako eraginen kontrola

Aerosorgailuek hegazti faunan duten eragina benetan zehaztu ahal izateko, eraikitako parke bakoitzean enpresa sustatzaileek jarraipen plan bat garatu beharko dute. Plan horretan alderdi hauek zainduko dira:

- (a) Talkak: Benetako garrantziaren ebaluazioa, parke eolikoaren periferian, ibilbide sistematikoen bidez, talka egin dezaketen espezieak eta espezieko indibiduo kopurua identifikatzeko.
- (b) Migrazioen behaketa, nola eztei aurreko migrazioa, hala eztei osteko migrazioa, nahiko garrantzitsuak diren migrazio bideetan. Eta hori bide horietan gerta daitezkeen aldaketak ez ezik, aerosorgailuen inguruetan hegaztiak izaten dituzten jarrerak ere ebaluatzeko.
- (c) Hegazti fauna sedentarioaren behaketa. Behaketa horren xedea da aerosorgailuen aurrean hegaztiak izan ditzaketen jarrera aldaketak ezagutzea. Behaketaren bidez jakin nahi da, halaber, aerosorgailuak egoteagatik hegaztiak jasaten dituzten ondorioak, mendi hegaletako haizeetan edo haize termikoetan ibiltzean, edo hegaztiak hegan egiteko dituzten eguneroko ohituretan edo erabiltzen dituzten aireko korridoreetan.

(d) Hegazti faunan gerta daitezkeen egoera atmosferiko kaltegarrien azterketa; esaterako, lainoa, bai noizbehinkakoa, bai iraunkorra. Egoera kaltegarri horiek sortzen dira inbertsio termikoengatik, euriteengatik, migrazio lekualdatzeengatik, aurkako haizeengatik...

Era berean, alderdi horien eraginei buruzko txostenak egin beharko dituzte, aldian-aldian. Eta sortzen den inpaktua murrizteko, neurriak aztertu eta proposatu ahal izango dira, inpaktua garrantzitsua bada.

Aipatutako neurriak ezartzeko baldintzak kokaleku bakoitzarako ezarri beharko dira.

3. GIZARTEAREN ONARPENAREN JARRAIPENA

3.1. Iritzi publikoaren eta jenderatzearen jarraipena

Proiektu eoliko osoaren gizartearen onarpenaren maila funtsezko faktorea da, eta baita arlo tekniko, ekonomiko eta ingurumeneko baldintzak ere, proiektuaren bideragarritasuna zehazteko.

Parke eolikoak instalatzeak onura objektibo batzuk dakartza, Plan honetako beste ataletan luze eta zabal aztertu direnak: ingurumena babesten du, energi berriztagarria da, industri garapena errazten du, oro har lur jotako lekuetan lanpostuak eta aberastasuna sortzen du, zuzenean eragindako herriek laguntza ekonomikoak dituzte... Nolanahi ere, energia eolikoak berekin darama zenbakietan jar daitekeen ikuspen inpaktua: paisaia tradizionalaren aldaketa, estetika berri eta futuristaren bidez. Estetika hori bera bakarrik izan daiteke gizarteak onartua edo ukatua. Eta esperientziak erakusten du instalazioen inguruetako jendeak, oro har, naturaltasunez hartzen duela paisaian aerosorgailuen presentzia, baldin eta aurrez informazioa jaso badute, aerosorgailuen funtzionamenduari eta onurei buruz.

Gorabehera horrek garbi erakusten du iritzi publikoaren, hau da, parkeak ukitutako biztanleriak parkeari buruz duen iritziaren jarraipena egitea garrantzitsua dela. Jarraipenaren helburua da gai horri dagokion balioztatzea ebaluatzea eta kasu bakoitzean egokiak diren estrategiak garatzea. Modu berean, planteatzen da ingurumen heziketaren inguruan jarduerak burutzea, ondorengo helburu hauekin: parkeak eragindako herriek duten parkeari buruzko informazioa hobetzea eta, oro har, instalazioak gizartearen modu ezin hobean integratzen ahalegintzea, instalazioaren beraren ingurumen integrazioaren parte bezala.

3.1.1. Iritzi azterketak, parkearen eragina jasaten duen jendartean

Iritziari dagokionez, enpresa sustatzaileak parke eolikoaren inguruan bizi den jendearen artean inkestak egin beharko ditu, parkea martxan jarri eta urtebetera. Horrela, parkearen eragina jasaten duen jendearen aurrebalioespena ezagutzeko modua izango da; eta ezagutu, gainera, jadanik iritzi objektibo bat eratuta egon daitekeen garaian, parkea instalatu berria dagoela.

Jendearen iritziaren azterketa ez da bakarrik izango parkearen inguruko jendearena; unibertso sozial zabalagoetako iritzia ere jasoko da. Horrela, ahaleginak

egingo dira proiektuen inguruan euskal gizartearen onarpen eta parte-hartze maila neurtzeko. Proiektu hau garrantzia handikoa da Autonomia Erkidegoarentzat, eta inolaz ere ezingo da proiektua garatu euskal gizarteari bizkarra emanda. Bigarren inkesta mota horiek urtero egin beharko dira, 2005 arte gutxienez.

Azkenik, Euskadin dagoen iritzi orokorra ere jasoko da, instalatutako lehen 100 MWak instalatzen amaitzen denean. Informazio horrek ahalbidetuko du etorkizuneko estrategiak gai honen inguruan gizarteak duen ikuspuntura zehaztasun gehiagoz egokitzea; ahalbidetuko du, halaber, gizartea instalazio eolikoaren inguruan zenbateraino gogaituta dagoen jakitea, instalazio mota horiek Euskadin garatzen jarraitzeko. Eta ikusita gizartea zenbateraino dagoen gogaituta instalazio eolikoekin, helburu estrategikoen inguruan goitik edo behetik jokatu ahal izango da.

3.1.2. Ingurumenaren inguruko heziketa programak

Energia eolikoaren eta aprobetxamendurako instalazioen inguruko iritzi publikoa jasotzeaz gain, energia eolikoa dibulgaratu ere egingo da Erkidegoan. Horretarako, ingurumenaren inguruko jarduerak antolatuko dira. Jarduera horietan azpimarratuko dira energia eolikoak dituen abantailak, energia iturri garbia den heinean eta betiko iturriekin alderatuz. Jarduera horietan azpimarratuko da, era berean, energia zentzuz erabili beharra dagoela.

Parke eoliko bakoitzean zehaztuko dira, parke bakoitzaren ezaugarrien arabera, ekintza dibulгатiboak. Eta ekintza horien artean hauek aipa ditzakegu:

- (a) Parke bakoitza seinaleztatzea, informazio panelen bidez.
- (b) Taldeen bisita programak, bereziki ikasleenak.
- (c) Interesa azaltzen duten taldeekin eta kolektiboekin hartu-emanak eta hitzaldiak.
- (d) Hedabideen aurrean informazio politika aktiboa egitea eta gauzak argi azaltzea.

Parkeetarako bisiten programei dagokienez, gizatiartze maila egokia duten instalazioak aukeratuko dira: jendea bertaratzeak zonako ingurune naturalari kalterik eragiten ez dieten instalazioak. Eta ingurune naturala kaltetzen bada, parkeetan baimendu gabeko jendeari sarrera debekatuko zaio, parkeak erakarrita jendetza handiek sor ditzaketen kalteak saihesteko asmoz.

3.2. Jarraipenaren urteko txostena

Euskal Autonomia Erkidegoan gutxienez parke bat duten enpresa sustatzaileek urtero txosten bat aurkeztu beharko diote Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari. Txostenean hau azalduko da gutxienez:

- (a) Energia elektrikoari buruzko ebaluazioa.
- (b) Energia elektrikoaren ekoizpena.
- (c) Helburuak betetzearen justifikazioa.
- (d) Instalaturako parke eolikoaren funtzionamenduaren ebaluazioa.
- (e) Ingurumen jarraipenari buruzko txostena: konklusioak.